

Oiartzun

TURISMOA OIARTZUNEN



Egileak:

Txispa.

LH5C.



Ikastolen Elkartea

Oiartzun gozatu

Zirpi-zirbi



- 1- Welcome!
 - 2- Ongi etorri gure herrira!
 - 3- Â¡Ven y disfruta de una experiencia inolvidable!
 - 4- Come and enjoy our town!
- Â


Aurkezpena

Kaixo lagunok,
Zirpi-zirbi intxixua
naiz. Ni animalia
mitologikoa naiz,
indartsua, aise
altxatzen ditut pisu
handia duten gauzak.
Bihurria ere banaiz,
asko gustatzen zait
txantxak egitea.

Presentación

Hola amigos, yo soy el
intxixu Zirpi-zirbi. Yo
soy un animal mitológico
fuerte porque levanto
con facilidad cosas de
mucho peso. Además, soy
muy traviesoÂ porque me
gusta hacer bromas.

Oiartzun begirada batean



Kokapena

Oiartzun Euskal Herriko ipar-ekialdean kokatuta dago, Kantauri isurialdean. Oiartzunen mugak Orereta, Astigarraga, Lezo, Irun, Donostia, Lesaka, Goizueta eta Arano dira.

Erliebe-elementuak

Oiartzungo erliebe elementuak mendia, basoa, arana, mendilerroa eta ibaia dira. Oiartzundik Oiartzun ibaia pasatzen da, mendiak berriz Urkabe eta mendilerroa Aiako Harria.

Bestelako informazioa

Oiartzunen pertsona ospetsuak daude edo zeuden, adibidez: Xabier Lete, Amalur Arbelaitz, Beñat Felipe, Ane Asensio, Ander Imaz, Alaitz Telletxea, Maider Zabalegi, Julen Castillo, Peio Añorga, Ane Garmendia, Alaia Martin, Antton Kazabon, Ander Lizarralde eta On Manuel Lekuona. Ohiturak hauek dira: Ihoteak, Santa Ageda eta San Juan Sua egitea.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

Hipatia lorategia



Hipatia lorategi bat da, Oiartzungo plaza aldean dago, Madalensoro frontoiaren gainean.

Hipatia lorategiak maila desberdinetan dago banatuta, lehen mailan tubo batzuk daude koloretako kristalez beteta, bigarren mailan korridore bat dago harri txintzarrekin, hirugarren mailan banko batzuk daude eta laugarrenean aterpetxo bat dago euria egiten duenean ez bustitzeko.Â Â

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

Aiako Harriaren parke naturala



Aiako Harriaren parke naturala Gipuzkoako ipar-ekialdeko babestutako gune natural bat da. Klima ozeanikoa dauka eta prezipitazio asko ditu (2.200.mm-tik gora urtean).

Lekuan fauna eta flora ere badago: animalietan, basurdea, sai arrea, izokina, orkatza... Floran berriz: haritza, gaztain ondoa, pinua, gorostia, pagoa...

Aiako Harriaren parke naturala herri desberdinetan kokatuta dago, Irunek (%18,2)a dauka, Oiartzunek (%44,7)a, Hernanik (%9)a, Donostiak (%3)a, eta Orereta (%25,1)a. Herri hauek Aiako Harria parke naturala osatzen dute.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

Oiartzungo udaletxea.



Oiartzungo udaletxea Oiartzungo Elizalde auzoan dago kokatuta, 1678an egin zuen Maese Nais de Zabaletak.

Oina karratua eta teilatua lau uretako dauka. Bere beheko solairuan aterpe bat dauka, 5 arkurekin. Arku horien gainean eusten da solairu nagusia. Fatxada nagusia iparraldera zuzendua dago, erdian balkoi bat dago eta bi aldeetara bana. Balkoien gainean haraneko bi armarri aurkitzen dira, Laicera aita-semek eskultore menditarren egindakoa.

Oiartzungo jaiei hasiera emateko udaletxetik txupinazoa botatzen da, abuztuaren 2an.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

Iturrioz Dorretxea




Iturriotz Dorretxea dago Oiartzunen, Iturriotz auzoan. XV mendean sortu zen. XV mendetik jabe asko izan ditu eta bakoitzak izen desberdina jarri diote baina orain IturriotzÂ Dorretxea deitzen zaio.

Azken urteetan, Oiartzungo Udalak historioÂ handiko IturriotzÂ Dorretxea konpondu eta berritzeko erabakia hartu zuen. Lehen jauregiÂ bezala erabiltzen zen eta batez ere baserri bezala, baina orain: yoga, dantza, zumba, tai-chi eta bertsolaritza egiteko erabiltzen da.


Â

Zirkuituaren mapa



Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



Haurtzaro Ikastola

Deskribapena

Haurtzaro Ikastola Elizalde auzoan kokatuta dago, herriko plazatik gertu.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Abiapuntutik lehen interesgunera joateko, Amazkar, Xabale, Doneztebe Plaza.

Deskribapena

Abiapuntutik lehen interesgunera joateko, lehenik, Haurtzaro Ikastolaren parean dagoen bidetik hasiko gara. Manuel Lekuona Hiribidetik aurrera joan Amazkar tabernaraino, Amazkarrera iristen zarenean aurrera joan Doneztebe Plaza aurkitu arte, orduan eskuinera biratu eta ezkerrean Xabaleko iturria utziz, orduan aurrekaldean arkupeak dituen eraikuntza bat ikusiko duzu eta hori da Oiartzungo Udaletxea!

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Lehenengo interesgunetik bigarren interesgunera joateko, Amazkar taberna

Deskribapena

Lehenengo interesgunetik bigarren interesgunera joateko, plazatik berriro ere Amazkar tabernaraino joan, aurrera egin eta eskuinean Hipatia lorategia edukiko duzu.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



Bigarren interesgunetik hirugarren interesgunera joateko: Makutso baserria, autobus geltokia, frontoia eta bidegurutzea.

Deskribapena

Hipatia lorategitik atera, Haurtzaro Ikastolara joan. Haurtzaron zaudela joan aurrera, bidegurutze batekin egingo duzu topo, hor zaudenean ezkerrean hartu eta malda jeitsi aurrera joan eta Makutxo baserria ezkerrean uzten duzunean, aurrera segi zubitxo bat aurkitzen duzun arte. Ondoren, autobus geltokia eskuinean utzita, biribilgunera joan, bigarren irteera hartu eta frontoia eskuinean uzten duzunean ikusiko duzu Iturriotz Dorretxea!

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



Hirugarren interesgunetik laugarren interesgunera joateko, bidegorria, skate park.

Deskribapena

Egin berri duzun bidea egin bide gorria ikusi arte. Behin bide gorrian egonik artu eskubirantz ezkerrean gimnasia egiteko toki bat utziz. Zuk aurrera egin bidegorrian. Eskuinera aparkaleku bat ikusten duzunean (koba batzuk igaro eta gero), igo aparkalekura: bide bat ikusiko duzu, bide horretatik aurrera joan ezkerrean etxe bat eduki arte. zorionak Iritsi zara helmugara!

Bisitarientzako gomendioak

Ez hartu loreak, bizirik iraun dezaten.

Ibil zaitetz espaloitik, zure segurtasunaren alde.

No tiréis basura al suelo, tiradla al cubo de basura.

No hagáis mucho alboroto, sobre todo por las noches.

If you have a pet, pick up the poo in a poo bag.

Bring an umbrella.